

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Urriak 26, 82. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



# Almenek 25 urte



## ZERIKUSIRIK BADUTE

## k eta elefanteak





**LARUNBATETIK**

**AURRERA**

**ZUEKIN**

*Ilarramendi*

---

*erlojudenda-bitxidenda*

Iturriotz kalea 7 Bis, Tfnoa: 77 12 71

Irekitzea: larunbata, hilak 27, arratsaldeko 7etan

**Gonbidatuta zaudete  
lunch-era.**



# ARRASATE PRESS

## ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

### Publizitatea eta harpidetza:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

### Maketazioa:

Goio Arana

### Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

### Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Lorazaintza gure artean

**O**rain dela gutxi, lorazaintzako sektorean koka daitekeen irabazpide berria inauguratu da Arrasaten. Albiste bihurtu zitzaigun ekintza hori, gure artean gero eta hedatuago ikus dezakegun joerari erantzun egokia ematera dator. Hain zuzen ere, lorazaintzak zerikusi handia izan badu erdi mailatik gorako bizitza moduan, gaurregun are nabariago egin zaigu haren presentzia, garatzen ari garen aisi-gizarte honetan.

Arrasateko Udalak ez dakit zenbat milioi pezeta gastatzen dituen urtero lorategi publikoetan. Ongi inbertituta, ene ustez. Lorategiek edertu egiten dituzte hiriak eta gureak ongi merezi du alde horretatik eskain dakioken bultzadaxoa, ezta?

Lorazaintzak egundoko garapena ezagutu du azkeneko urteotan. Estatu Batuak eta Erteuropako herrialdeak ditugu zaletasun erakargarri horretan gehien nabarmendu direnak. Zeinek ez ditu Holanda edota Frantziako lorategietan atsegintasunaren hatz goxoak sentitu? Japonia eta Txinako kulturetan lorazaintzak leku berezia izan duen arren, badirudi oraingo lasterketan aintzindaritzako postuak galtzen ari direla, batez ere Europatik egiten zaien lehiakidetzeta dela eta. Horra hor, esaterako, Holandako

izakeraz erlazionatzen dugun tulipana: bere jatorria Asian dago eta hamaseigarren menderarte ez zen «tulipanen herrialdera» heldu. Gaur ezina izango litzaziguke tulipanik gabeko Holanda asmatzea.

Sektore honek izaugarritzko diru kopurua mugiarazten du. Loreontzirik apaleneko geraniotik errege-jauregiak inguratzen dituzten lorategi apartetaraino mundu erraldoia sortu da. Eta tarte zabal horretan protagonismo berezia hartu du ikerkuntzak, landareetako hazkuntzaren mekanismoak menderatu asmoz. Loreen izakera fisiologiko, genetiko nahiz ekologikoan ikerketa sakonak egiten direlarik, lore eta-oro har-landareei egokipena bilatzen zaie, hirietan eta gizakiz «kutsatutako» arloetan euren edertasunean bizitzen jarrai dezaten. Lore-biologiak eta landareetako arkitekturak bizigarriago bilakatzen dizkigute gure herriak.

Horregatik, zementoarean eragina handia dugun garaian, lorazaintzaren adarrak sekula baino gertuago ditugula frogatzeak itxaropenerako beste urrats bat suposatzen du. Aitzur, guraize eta lore-hazitik zehar oreka ekologikora. Hutsaren hurrena!

*Jose Mari Velez de Mendizabal*



**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**







# Zer erizten diozu hauteskundeetan gastatzen den diruari?



**Garikoitz Garmendia**  
(ikaslea)

Beharbada gehiegi gastatzen da. Gauza gehiago esan daiteke hainbeste diru gastatzeke. Telebistan edo irratian diru gehiegi gastatzen dute, eta nahiko izango litzateke jendea beste era batean informatzea, esaterako etxera programak bidaliz.



**Gloria Borsi**  
(langilea)

Asko gastatzen da, gastatu behar dena baino gehiago. Gehiago begiratu behar da zertan gastatzen den.



**Tere Zarraoa**  
(jubilatua)

Ez dakit zer esan. Diru hori nirea balitz beste gauza batzuetarako emango nuke. Ez dut asko ulertzen, baina uste dut gehiegi gastatzen




dela.  
**Luis Lasgabaster**  
(dendaria)

Larregitxo gastatzen da, batzuk besteak baino gehiago, baina larregi. Dirua daukanak beti irabazten du.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

*Zubizaretta*

**GALERIA 44**  
Arrasate

**KOPIOTXOA**

*Fotokopiak*  
*Planu-Erreproduzioak*  
*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22



**ETXE-AUNDI**  
Dastapen-menua  
azaroaren 3rako

- \* Itsaskien entsalada belar finekin
- \* Ahate ragout-a letxua hostotan.
- \* Legatza piperrada gainean.
- \* Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio (945) .....	45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALTZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZAK

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
----------------------------------------------------------------	----------



## 26

### OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Desafio total", 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## 27

### LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Desafio total", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Orientazio ikastaroa, Besaide Mendizale elkarteak.
- Monterronen arratsaldeko 4.30etan "Arka galduaren bila" euskarazko bideo emanaldia.
- Antzerkia, "Plumas celestiales" Amaia antzokian gaueko 10.30etan.
- Antzuolako frontoian herriko

artisten jaialdia, 10.30etan.

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 28

### IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Desafio total", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Orientazio ikastaroa.
- Bergaran rallye fotografikoa Pol-Pol elkarteak antolatuturik. Izen ematea elkarteak bertan goizeko 9etatik 9etara, 1.000 pezetagatik.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## 29

### ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Desafio total", 7.30etan.

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 30

### ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 7 eta 9.30etan.
- Bergarako jubilatuetan hitzaldia "Gaixo kardiakoak, infartoa eta bularreko angina" izenburupean, Rosa Azkueren eskutik arratsaldeko 5etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

## 31

### ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## 1

### OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

## Kirol Agenda

### FUTBITOIA

• • •

### FUTBOLA

• • •

- Igandean arratsaldeko 4etan Atxabalpe ondoko futbol zelaian preferente mailako futbol partidua San Andres eta Nanclaresen arteko partidua.
- Larunbatean arratsaldeko 4etan Atxabalpe ondoko futbol zelaian emakumeen futbol neurketa Mondragon eta Oiartzun taldeen artean.

- Zaldibarko txapelketaren barruan 30 futbito partidua Zaldibarko frontoian, kiroldegian, eta Santa Teresa ikastetxean, asteburu guztian zehar.

### SASKIBALOIA


• • •

- Larunbatean arratsaldeko 6etan kiroldegian Centraljet Euskal Air eta Ariz Koop. Basauriko taldeen arteko partidua.



## Musika

• Datorren larunbatean Anoetako belodromoan **Iron Maiden**, heavy taldeak, kontzertua eskeiniko duela eta, Arrasatetik autobusa aterako da bertara joan nahi dutenentzat. Autobus zerbitzu honetaz baliatu nahi direnak Eresitxik pasa eta 1.000 pezetagatik kontzerturako sarrera hartu eta bidaia egin ahal izango dute. Arratsaldeko 6etan aterako da autobusa Garibai geltokitik eta eguerdirarte izena emateko aukera dago. Itzultzeko 12.30etan aterako da autobusa Anoetatik.



## Bekak

• Drogomenpekotasunen prebentzio-zerbitzuak beka bat kaleratu du Arrasaten 15 urte-tik 24 urte bitarteko gazteen egoeraren ikerketa egiteko. Dirulaguntza 600.000 pezetakoa da eta helburua drogomenpekotasunen fenomenoarekin zer ikusirik daukaten elementu ahalik eta objetiboena eskuratzeari litzateke. Datu bilketaren sistema inkesta prosezuz egin beharko da eta beka eskuratu nahi dutenek erdi edo goi mailako Unibertsitate ikasketak izan beharko dituzte. Azterketaren iraupenak ez du 6 hilabeteko epea gaindituko, eskaria egiteko epea berriz, azaroaren 22an bukatuko da.



## ANTZERKIA

### Plumas celestiales

Larunbata gauean, hamar t'erdietatik aurrera Amaia antzokian **Markelife** antzerki taldeak "Plumas celestiales", lanaren antzezpena eskainiko du. Antzezlari hau ikusi nahi duenak 500 pezetako sarrera ordaindu beharko du, 300ekoa gazte txartela aurkeztuz gero.

Markelife taldea hiru aktorez osatua dago, Iñaki Egiluz, Javier Renobales, eta Joserra Martinez; zuzendaritza lanak berriz, Isidro Rodriguezek betetzen ditu. Hiru aktoreek, antzezpenean, hiru fraideren papera betetzen dute: Antonio de Campanillas, abate zahar eta umore barrekoa; Adon, fraide gaizto eta libidinosa; Bruno, aldakorra eta Michael Jackson-en zale amorratua.

Hiru fraide hauek umorez betetako antzezlana eramatean dute aurrera, eta zerbait aipagarria balego, erabiltzen duten hizkera litzateke, erdera eta latinaren arteko nahaste-borrastea. Barre egiteko aukera ederra dudarik gabe.

## Aldizkariak

• Uztailen Antzuolan **Irinmodo** urtekariaren bigarren alea kaleratu zen. Duela bi urte



argitaratutakoak, uholdeak aitzaki hartuz, esperientzia berria suposatzen bazuen ere, bigarrenak nolabait finkatzea ekarri du. Urte batetik bestera aldaketa ugari eman dira urtekarian, aipagarriena lehen aleko koloreari zuri-beltzak hartu diola txanda.

Urtean zehar Antzuolan gertatutako hainbat gauzaz gain, bai kalean eta baita ere erakundeetan, herriaren historian emandako zenbait gertakizun irakur daitezke bertan. Udala eta Antzuolako enpresen laguntzarekin ateratzen den urtekari hau, 10ren bat herritarrek egina dago.

## Hitzaldiak

• AED elkarteak antoiaturik azaroaren 8an, osteguna, arratsaldeko 3etan AED elkarteko aretoan "Bedarrak eta enplastuak" izenburupean hitzaldia eskainiko du Alberto Altube naturzaleak. AEDk interesaturik dauden guztiak gonbidatzen ditu hitzaldi honetara ager daitezen.

## Lehiaketak

AEDk antolatutako lehiaketetan partaide izateko, azken egunetan zaude. Bideo, komikia, argazkia, ipuina, poesia edo bertsopaperetan sari bikainak daude. Hasieran azaroaren 1erako aurkeztu behar baziren ere, zubia dela eta, egun batzuk gehigo luzatu da. Iokin Zaitegi IV. Itzulpen laburren sariketa ere lanen zain dago.



## Euskara

• AED elkarteak urteko Batzar Orokorra egingo du azaroaren 9an, ostirala, Montteron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan. Bazkide guztiei dei berezia egiten zaie bilerara azaltzeko eta baita ondorengo afarira ere. Afaria girotzeko trikitilari eta bertsolarien laguntza izango da, eta joateko asmoa duenak dei egin beza lehenbait lehen AEDra bertara. Telef: 79 54 46



“.....  
Baina Zamudioko Parke Teknologikoa ez da berrikuntzaren adibide bakarra. Arrasateko (Gipuzkoako) kooperatiba, eta batez ere Fagor da Euskadiko berrikuntza teknologiko eta produktiboaren erakusle aiderazgarrietakoa”.

(Walter Oppenheimer-ek El País egunkarian)

“.....  
Esther Larrañaga, ezkongabea, Arrasaten jaio zen orain 31 urte, familia kooperatibista batean. Zuzenbidean lizentziatua, Kulturako Zuzendari orokor kargua betetzen du gaur egun”.

“Politikan nola sartu nintzen? Emakume askok dugun joera horregatik, nahiz eta gero alderdi politiko jakin batean sartu ez. Pertsonalki, bestalde, Karlos Garaikoetxea lehendakariaren amiltzea gertatu zenean egin nuen aukera politikoaren aurreko konpromezuarengatik”.


(Esther Larrañaga, DV egunkarian.)

“.....  
Jon Iriberrik poesia idazten du, bakarkako beste lan handi hori. (...) Opa digunekorik eta opa ez digunekorik agertzen da poemotan. Ez dira poema guztiak larrosa. Perfume arreagorik, mikatzagorik duenik ere bada. Arretaz, sotiltasunez, zalantzan. (...) Jon Iriberrri aspalditik da Gerardo Markuleta, Oñatin jaiotako euskal idazle gaztea. Langile bakarlarria”.

(J. Muñozek, Habe aldizkarian)

**Nola geldituko da Udala mailegua eskatu ondoren?**

Ez dakit guztia eskatuko dugun, momentu honetan ezin daiteke kuantifikatu. Guk egin nahi duguna da nolabait eskatu tope bat jarrita, eta gero erantzunaren arabera, kopuru bat edo



beste formalizatu. Ezin da momentu honetan kuantifikatu mailegu horren eragina zein izango den.

Hala ere, orokorki esanda ipin daiteke gehienez sinatu behar dugun maileguarekin geldituko garela, gutxi gorabehera %12ko zor indizearekin. Indize horren inguruan nolabait azalpen bat emateko, mailegua egin eta gero nahiko ondo geldituko garela esan daiteke, ez dugula egoera txarrik izango.

Diru beharra dagoelako eskatzen dugu mailegua, batez ere egin beharko ditugun zenbait inbertsio finantziazteko: Iturripeko instalazioak, hilerri berria, Ferixalekuko frontoiko lanak, etab. Ez dago zertan konkretuki horretan erabili beharrik.

Mailegu eskatzen denean teorikoki obra baten finantziaketan erabiliko duzu, baina gero benetan beharra dagoen tokian erabiliko duzu. Azkenean mailegua kenketa baten ondorioz ateratzen da; nik gastatu nahi badut 2.000 milioi eta nire diru iturriak bakarrik 1.400 milioioak badira, 600 milioi behar ditut.

Printzipioz, goitik botata, 600 milioiko mailegua eskatuko dugula esan daiteke eta osorik eskatzen badugu zor indizea %12koa izango dela. Indize hori ez da oso altua beste Udalekin konparatuz, marjena ematen du, eta zenbait inbertsio finantzatzeko izango da.

Iñaki Balzategi,  
Konuhartzailea.



**Parques  
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





## Aretxabaleta

Bi ikastarotan parte hartzeko aukera daukate nahi duten atxabaltarrek, bata sukaldaritzakoa eta bestea igeriketakoa. Lerro hauek argitaratzeko orduan sukaldaritzakoa hasita egongo bada ere, esatekoa da *Uratz-alde* elkartean egingo dela asteazkenero arratsaldeko 3etatik 5etara.

Igeriketa ikastaroa kiroldegian egingo da datorren hiletik aurrera. Haurrentzat arratsaldeko 5etatik 6etara bitartean, eta helduentzat 6.15etatik-7.15etara zein 7.30etatik-8.30etara. Izena kiroldegian bertan eman beharko da, bazkideek 3.000 pezeta ordainduz eta ez direnek 4.700.



## Antzuola

Urtero bezala, larunbatean Antzuolako frontoian herriko artisten jaialdia burutuko da, koadrila taldeak antolatzen duen jaialdia hain zuzen. Aurtengo jaialdiari gaueko hamar t'erdietan emango zaio hasiera, goizalderarte luzatuko delarik.

Dantzari txikiak izango dira frontoian jarriko den agertokira igoko diren lehenak. Dantzarien ekitaldia bukatu ondoren txistularien txanda izango da, ondoren dultzaineroena eta gero trikitilariena. Jaialdiaren erdi-aldera Salbador eta Patxi aita-semeen saioa ikusi ahal izango da, aita kantatzen eta semea pianoan. Ekitaldi berezia gero, herriko zenbait pertsonak "Nafarroa Oinez"eko propagandan erabili zen bideoaren sketch-a egingo bait dute. Bukatzeko Korkoil taldearekin dantzaldia.

Jaialdiaz gain, arratsaldeko 7.30etan txikiteoa eta kalejira egingo da, gero artistek elkarrekin afalduko dutelarik. Antolatzaileek diotenez, hotz eginda ere aurten ez omen da arazorik izango, enpresaren batek berogailuak utzi ditu eta.


## Elgeta

Hiru txirloko modalitatean bihar larunbatez Elgetako bolatokian Euskadiko Txapelketa jokatu da. Txapelketari arratsaldeko 5etan emango zaio hasiera, eta bikoteka zein bakarka parte hartu ahal izango da. Antolatzaileek iragarri dituzten sariak honako hauek dira: 7.000 pezeta lehenarentzat, 5.000 pezeta bigarrenarentzat, 3.000 pezeta hirugarrenari, 2.000 pezeta laugarrenari, eta 1.000 pezeta ondorengo lau postuetan sailkatzen direnentzat.

Larunbateko frogan, nahi duen guztiak hartu dezake parte. Euskadiko Txapelketarako puntuagarri diren tiradetan bakarrik federatuak parte hartu ahal izango dute

## Bergara

*Mendia Bizirik* taldeak antolatu duen Pila bilketa kanpainak aurrera darrari, eta pilak uzteko lekuetan jaso ahal izango duzue informazio boletina ere.




# RR RICOH

TELEFAXen aukerarik zabalena eskaintzen dizu RICOHek, merkatuak planteatzen duen beharren dibertsifikazio handiari erantzuteko egokia. ZERBITZUrik bikainena ere ziurtatzen dizu RICOHek; beronen TELEFAXak, DIAGNOSTIKO-ZENTRUTik telefonoz txekatu, programatu eta doitzeko moduan daude diseinatuak.

MAQUELSA  
Avenida 52 etxabea,  
Tlnoa: 945-24 22 04.  
Fax: 24 64 97  
01008 GASTEIZ



## Hauteskundeetan



EAJkoak Arrasate Presan




EAKoak Arrasate Presan



EEkoak Arrasate Presan



HBren mitina



## Hauteskunde sindikalen emaitzak

*Oraindik enpresa handienetan egiteko*

Hauetxek dira herriko enpresetako orain arte izandako emaitzak

### ELA

Boisa ..... (1)  
Bringas ..... (1)  
Masare ..... (1)  
Paziola ..... (1)  
Erle ..... (1)  
Ale ..... (1)  
Lasa ..... (3)  
Cespa ..... (1)  
Akei ..... (1)  
Biak ..... (1)  
S. Ageda sukai (1)  
Olgam ..... (1)  
Petra Garcia ..... (1)  
Aukea ..... (1)  
Iturbide Egoitza. (1)  
Heriz Eraikun .... (1)

Memesa ..... (1)  
Merced Ikast. .... (1)  
Kobate ..... (1)  
Eurest ..... (1)  
Dragados ..... (1)  
Gizonezkoen  
Psikiatrikoa ..... (2)  
Brues ..... (3)  
Polmetasa ..... (4)  
Uribesalgo ..... (3)  
Trefasa ..... (1)  
Udalautoq ..... (1)  
Asunzion ..... (1)

### CCOO

Obea ..... (1)  
Psikiatrikoa ..... (3)  
Udalaitz Tail. .... (1)  
Uribe Fruitak ..... (1)  
Brues ..... (3)  
Polmetasa ..... (2)  
Trefasa ..... (1)

Arrue ..... (1)  
Meca ..... (3)  
Omu ..... (1)  
Aranburu ..... (1)  
Garraioak ..... (1)  
Compasa ..... (1)  
Chapime ..... (1)  
Meca gasolind. (1)  
Arrate eraik. .... (1)  
Civasa ..... (1)  
Bihurtu ..... (1)  
Esma Kart. .... (1)  
Canas eraik. .... (1)  
Musak. Gasoil. (1)  
Eya elektri. .... (1)  
Asam ..... (1)  
Joma ..... (3)

### LAB

Samego ..... (1)  
Epele Kalde. .... (1)  
Lantoki ..... (1)

Goizeko Izarra .. (1)  
Eulen S.A. .... (1)  
Bringas ..... (1)  
Musakola Host. (1)  
Omnia Motor .... (1)  
Lasagabaster .... (1)  
Izar Arbi ..... (1)  
Hiru Mekan. .... (1)  
Uribesalgo ..... (2)  
Trefasa ..... (2)

### UGT

Loytor ..... (1)  
Saremar ..... (1)  
Garai Altzai ..... (1)  
Atxa Egurrak .... (1)  
Galoa ..... (1)  
Brues ..... (2)  
Polmetasa ..... (3)  
Trefasa ..... (1)  
S. Josepe Alt. ... (1)  
P. U. Aroztegia . (1)

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 69 72 ARRASATE





Aurkezpenean Udaleko eta Diputazioko ordezkariak izan ziren

## Ingurugiro Eskola aurkeztua

*UNESCOren babesa lortu nahian*

Lehenengo ostiralean aurkeztu zen jendaurrean Udala auzoko Ingurugiro Eskola izango denaren proiektua, auzo hartako lehenengo eskolan kokatua. Gizarte osoaren eta batez ere eskolumeen ingurugiro heziketarako tresna izatea da eskola berri horren helburua, gizakia, bere kultura eta ingurune biofisikoaren arteko erlazioa ulertu eta horrenganako estimazioa ekarri dituen baloreak azaldu nahi zaizkie ikasleei.

Hasiera batean Eskola OHoko 6. mailako ikasleentzat espezialduko da Udalako eskolan eta heziketa berezi hori hiru epetan banatuko: ingurugiroari buruzko kontzeptuak jasotzea, jarrerak garatzea eta trebeziak lantzea azkenik.

Egituraren aldetik, 25 ikasletako talderentzat izango da lekua, 350 m<sup>2</sup> bi solairutan, pilotaleku estalia izango du, eta barruan laborategia, sukalde eta jangelak, logelak eta abar.

Arrasateko Udala eta Diputazioko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro sailak lagunduriko eskola honetan parte hartzeko moduz esan behar, egun bakarreko bisita nahiz asteburu edo astean zeharreko egonaldiak bereizten direla modu ezberdinen artean. Dagoeneko esperientzia pilotoa pentsatua dago eta ingurugiro eskola 37 taldek bisitatuko dute, 925 ikaslek guztira. Egun bakarreko ikustaldian 800 ume etorriko dira, 32 taldetan banaturik, eta egun bat baino gehiagotarako beste 125, 5 talde asteburuetan. Hasierako esperientziaren aurrekontua 4.856.000 peztakoa izango delarik.

Udalakoak, azkenik, epe luzera begira dakarren nobedadea, berriz UNESCOrekin lotua dago. Nazioarteko erakunde horren Ingurugiroari buruzko Irakuskuntzen Departamenduaren babesa lortzearekin, hain zuzen.

## Usteak uste

**E**rraz aldatu dira gantzak azken hamar urteetan hanteskunde kanpainiei dagokienez. Orduan diktaduratik irten berri, mitinek eskaintzen zuten politikari ezezagunak ikutu eta hurbiletik sentitzeko aukera. Oro har, populismo giro beroagoa bizi zen. Gaur, berriz, mitinak ikaragarri gutxitu dira eta hiriburuetan indarra erakusteko erabiltzen dira. Ez da harriztekoa hortaz, Arrasaten lehen moduko mitinik ez ikustea.

Telebistak hartu du gaur egun mitinen tokia. Telebisten monopolioa apurtu egin da eta medio hurbilagoa bihurtu. Hautagaiak norberaren sukaldera hurbiltzen ditu eta gustokoak suertatu ezean, kanalez aldatu eta kito. Lehen baino askoz ere jende gutxiago ibiliko da hautagaiekin, baina hori bai, telebista kamara hortxe egongo da edozer gauza grabatzeko prest. Hautagaien kanpainak telebistaren arabera tajutzen dira orain. Bestela Santa Barbarara igotea gehiegi kontsideratuko lukeen hautagaiak gustora igoko lituzke Murugain edo Udaltz, telebistan agertzekotan baina.

Kanpaina honetan hiru partidutako hautagaien bisita izan dugu bai Arrasate Pressen eta ATBn. Kanean ere hor izan ditugu, bestela paraje hauetan ikustea hain zaila diren politikariak.

Maiatzean gehiago, baina orduan bertakoak izango ditugu.

*Joxe Aranzabal*



Mila hitz baino  
argiagoa da  
irudi bat



**GUBI ILEAPAINDEGIA**

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

**E D E L  
TAPIZTEGIA**

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA





Antena parabolikoa da seinalea jasoteko modu bat

## Telebista pribatuak iristear

### Murugaineko antena ezingo dute erabili

Hego Euskal Herriko hiriburuetan telebista pribatuen seinaleak jasotzen hastearekin batera, Retevisión erakundeak - Estatu mailan telebistentzako azpiegituraz arduratzen denak -, interesa azaldu zuen Deba Garaian *Antena 3*, *Canal +* eta *Tele 5*ren seinaleak emititzen lehenbailehen hasteko. Murugain erabili nahi zuten horretarako.

Murugainen bi antena eta kaseta daude, Arrasate eta Aretxabaletako Udaltzaingoen erabiltzen dutena eta Euskal Telebistarena bestea. Erakunde publikoaren antena erabiltzeko asmoa

azaldu zuten, baina ezetzaren aurrean, beste bat eraikitzeko baimena eskatu dute Udaletxean. Udalak ez dio asmo horri oneritzirik eman, eta dagoenarekin konpondu beharko direla, Murugainen dagoen Burdin Aroko aztarnategia hondatzeko arriskua dagoela eta.

Eusko Jaurlaritzatik ezetza jasotzerara, San Andres parean dagoen Kurtze Txikiren magaleko ur depositua da beste aukera bat, eta dagoeneko hasiak dira neurketak egiten. Hala ere, antena hori jarriz gero, Arrasaten bakarrik ikusi ahal izango litzateke, eta ez bailada osoan.

#### Abaroako ikastaroak

Abaroa Jubilatuen etxean sukaldaritza ikastaro bat hasi zen atzo, ostegunez. Ikastaroa ostegunero izango da, dohainik, arratsaldeko 3etatik 5etara, eta izenematea arratsaldeko 3etatik 7ak bitartean egin daiteke.

#### Euskara taldeak

Bailadako euskararen aldeko taldeek euren arteko lehen bilera izan zuten joan den astean, elkar ezagutu eta bailara mailako elkarlana planteatu eta koordinazioa lortu ote daitekeen ikusteko. Antzuolako *Idolazetik* Gotzon Iparra-girre, Bergarako *Jardunetik* Jose Angel Mikeo, Aretxabaletako *Beinketik* Aitor Sarasua, *AEDtik* Jose Mari Mujika eta Juan Luis Arejolaleiba bildu ziren. Oñatiko *Laixan* ere talde horretan sartuko litzateke, nahiz eta bilerara etorri ez. Hemendik aurrera hilero biltzeko egutegia egin zuten

#### Jaiotzak

Beloki Alvarez *Goizane*, Urriaren 11an  
 Uribealgo Rodriguez *Amaior*, 11an  
 Urizar Altuna *Uxue*, 15ean  
 Parra Lete *Enara*, 15ean  
 Lopez Morales *Lorea*, 15ean  
 Amozarrain Urrutia *Jone*, 17an  
 Agirre Uribealgo *Amaia*, 20an  
 Hernandez Lana *Mikel*, 21ean

#### Eskontzak

Juan Cruz Diez & Josefa Abad. Urriaren 20an. Elizez.

San Viator Ikastola



Pertsona euskalduna eta aisialdetan esperientziaz behar da San Viator ikastolan, ikasleen begirale eta aktibitateak egiteko, eguerdiko 1etatik 2.30etara.

- Epea: azaroaren 2ra arte.
- Eskakerak San Viator Ikastolan. Arrasate Pasealekua 10, Tfnoa: 79 04 11




Kontzesiño 2,  
 Tfnoa: 79 14 06  
 ARRASATE

**beatriz**  
 oinetakoak eta  
 poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
 ARRASATE





**K**aixo irakurle maiteak eta ongi etorri berriro ere Saski Naskira. Aurreko lehiaketak izandako arrakastaren ondoren, hementxe datorkizue berriro Saski Naski, zenbait berrikuntzarekin:

### SASKI NASKI LEHIAKETAK

- Astero hiru opari emango dira.
- Opariak Arrasate Presseko orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean zozkatuko dira.
- Galderei erantzuteko, orri honetan agertuko diren txartelak erabili.
- Erantzunak Arrasate Pressera ekarri edo postaz bidali.
- Zozketa asteazken arratsaldeetan egingo da, aipatu denda horietako batean.
- Sariak ostiraletan banatuko dira aipatu dendetan.
- Saski Naski lehiaketa azaroaren 9an hasiko da.

### SASKI NASKI ZOZKETA HANDIA

- Okendo Kirolak, Jose Aranzabal Elektratesnak, eta Tamayok sari sorpresa handia emango dute urtarrilean.
- Zozketa Handi honetako txartel zenbatuak aipatu dendetan banatuko dira, erosleen artean.
- Gorde txartelak urtarrilerarte.
- Zozketa urtarrilean egingo da, aipatu denda horietako batean.


Adi egon bada, irakurle azaroaren 9tik aurrera. Zuk ere parte har dezakezu bai Saski Naski lehiaketan eta baita urtarrileko Zozketa Handian ere, eta Sari harrigarriak irabazi. Zorte on!



*Jose Aranzabal*  
TB, HI-FI, BIDEOA




J. URIARTE








Eskola Politeknikoak eta Saiolanek batera jarri zuten erakustazokan stand-a. Frekuentzia bihurgailua eta Ekideren fresagailua ikusten ditugu, estanzazio, modelaia, matritzintza eta abarretarako aplikazioa duena, azken hori.



Ikerlan ere Bilbon izan zen, urriaren 17tik 24era bitartean, estatuko eta Europako I+G programetan enpresen kide izanik. Informazioaren teknologiak, diseinu eta fabrikazioko teknologiak, energia eta teknologia lagungarria ikus zitezkeen.



Fagor-Goiti eta Fagor Leunkor ere ikusi genituen. Leunkorrenera jende ugari bildu zen, edozein intermitentzietarako erabil daitekeen makina berria aurkeztu bait zuten, lehengo aldiz erakusketa horretan.



**AHIZKE-CIM Koop. E.**

ACEIG-FECEIko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	Haurrak	Maila guztiak
Frantsesa	Gazteak	Azterketarako prestakuntza
Ingelesa	Helduak	Ohizko ikastaroak eta trinkoak
	Enpresak	

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

**LOREA**

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

**LARRINGAN**

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA**

**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE





L.A.S.A. (Linea automatikoak), debanadora bikoitza, enderezadorak eta, lekurik ezean, zenbait makinaren buruak erakustera etorri zen. Jende dexente hurbildu zela aipatu ziguten.

## makina erremintaren erakusketa



Fagor taldeak eraman zituenen artean Fagor Automation izan zen jende gehien erakarri zuenetako bat. Bisualizadoreak, kontrol numerikoa, kaptazio sistemak eta komunikazio programak ikus zitezkeen erakutsitakoen artean.

## Laburretan

● **Hasierako arazoa:**  
Makina Erramintaren erakusketa martxan jarri zenean garraioen sektorean zegoen grebak eragin handia izan zuen. Horrela, zenbait enpresatako stand-ak berandu iritsi ziren, eta bisitarien etorrera ere asko gutxitu zen. Egunak aurrera joan ahala, ordea, gauzak aldatu egin ziren, eta egunean 15.000 bisitaritik gora izan ditu azokak.

● **Gipuzkoa**  
Erakustazokan bildutako 580 erakusleren artean 124 Gipuzkoakoak ziren, eta Diseinu Industrialeko lehiaketan ere Elgoibarko Kondia enpresa izan da irabazle.

● **Aparkalekuen arazoa**  
Bienalak egunero izan duen bisitari pila kontuan izanda, inguruko aparkalekuak gutxitxo ere badirela argi geratu da. Azokarako bertarako apropos jarritakoekin ere nahikoa ez denez, hurrengo biurtekorako konponbideren bat aurkitu beharko dute antolatzaileek.



Kooperatibetatik at, Arrasateko S.A.-k ere izan ziren Makina Erramintaren erakusketa nagusian. Gameik arazoak izan zituen hasieran, garraioaren greba zela eta Bilboraino iristeko. Husilo erako prentsak, aluminioa ziztatzeko makinak eta latoizko iturgintzarako makinaren prototipoa eraman zituzten, besteak beste.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak

Eskatu ordua, asteleheneretik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE





▲ Pozik zeuden **Antonio Iza** eta **Anton Blanco** Ola Tailerretako buruzagiak *Opel Calibra* automobil berriaren aurkezpenean Bergaran, joan den ostiral iluntzean. Jende ugari bildu zen bertara Opelen gama berriztua ikustera. *Calibrak* bereganatu zituen gidarien begiradarik gehienak.



▲ **Josemi Aguriondo** eta **Lourdes Arregi** Ekainaren 24ean ezkondu ziren, San Juan egunez, beraz. Ezkon osteko bidaiari Kenyara aldegin zuten. Zorionak!



◀ **San Frantzisko Xabier ikastolako 4. mailako ikasleak** dira. Ikastolako ekintzen barruan, txangoa egin zuten Lodosa aldera, piper, tomate eta esparraguen kontserbak nola egiten diren ikustera. Prozesu osoa jarraitu omen zuten, eta baita kainaberekin jolas egin eta argazkia atera ere. Hurrengoan ere joateko gertu izango dira, noski!

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





▲  
**Jose Luis Etxebarria Mondrako** lehendakaria da. Futbol talde horrek sartu du iadanik denboraldiko lehengo gola euskararen alde. **Errealarekin** kontratu bat sinatzekotan dabilta eta egun batzuk lehenago kontratuaren kopia bidali zioten donostiarrek Porruri. Horrek, erderaz zela ikusirik, kontratua euskaraz sina ote zitekeen proposatu zien txuriurdinei. Donostiarrek berriz, Exposito eta Kortabarria jaunak buru zirela, harridura handiz baina gusto handiagoz entzun zuten mondragoetarren proposamena. Gooool.

Arrasateko lokalen errolda egiten ari direnak dira. argazkiko hauek eta beste hiru lagun. Zenbaitzuk modu txarrean ere hartu omen dituzte, eta egindako galderei erantzun ez. Hurrengo errolda azterketan horren emaitzetatik aterako denez, emaeizu zure laguntza! ▶



*txutxumutxuak*

*Izen*  
**PROPIOAK**

● **Fran Iturbe**, 26, bergarra, Arrasateko udaleko Hezkuntza sailean hasi da lanean, 6 hilabeterako eta egunerdir. Franek Bergarako Batxilergo Institutuan egin zituen Batxilergo ikasketak, eta ondoren Gizarte Laguntzailearenak Gasteizen. Musiko ezaguna dugu bergarra, *Jotakie* taldean jotzen bait du kitarra.

● **Anjel Garcia**, 16, arrasatearra, Estatuko halterofilia txapelduna da haur mailan, joan den asteaz geroztik. Eskola Politeknikoan ikasten du. Gijon-en 90,5 kg jaso zituen kolpe bakarrean, eta bi mugimendutan 95,5 kg. Dirudenez, alde handiarekin atera zen garaile.

● **Mikel Arana Iturbe**, 24, arrasatearra, Diputazioak Tolosan duen Kamara Agrarian hasiko da lanean, perito agronomoentzat zeuden oposaketak atera ondoren. Agronomia ikasketak lrufean egin zituen eta orain arte Fagorreko S.A.T.ean lan egin du sare informatikoak jartzen.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

**arrandegia**  
**arrain freskoa**  
**eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
 Arrasate. 79 98 94





# Hogeitabost urte etorkizunari begira

**Almen ikastolak 25 urte bete ditu. Asteburuan izandako jaia ospakizunaren hasiera baino ez da,**



Ostiraleko ekintzan oroigarriak banatu ziren

**A**retxabaletatik Eskoriatzara bidean, Torrebaso gainean, lehenaren lekuko da Almen, geroari erantzuteko prest.

## Orain 25 urte

Orain hogeitabost urte-  
etxe bat hasi zuten Leintzen...". Honela hasten da Almenek bere 25. urteurrenerako atera duen himnoa. 67an sortu bazen ere, bailarako ikasleei batxilergoa bailaran bertan egiteko aukera eskaintzeko asmoa sortu zitzaion 65ean guraso talde bati, eta Marianisten ikastetxe zaharra, aurrez bainuetxe izandakoa, hartu zuten ikastetxe moduan. Lehen taldea 40 ikasleek osatu zuten, denak mutilak, 1965-66 ikasturtean. Ikasle kopurua, irakaslego eskasia, eta hasierako baldintza kaskarrak konponduaz joan ziren, eta poliki-poliki egun duen egitura hartu ikastetxeak. Izan ere, guraso talde batetik sortutako ekimen hura sendotu beharra zegoen, hasitako

eginkizunari jarraipena eman behar zitzaion. Horrelaxe sortu zen ALMEN (Asociación Leniz Mancomunidad de Enseñanza), irakaskuntzako kooperatiba, prestakuntza eta garapen sozio-ekonomikorako baliapide gisa. Denbora gutxian 2.000 bazkide eta 22 enpresa babesle hurbildu ziren proiektu berri hartara.

Hezkuntzan ere gizarte komunitate osoaren partaidetza lortzea zen, eta orain ere hala da, helburua eta aukera desberdintasunaren bidegabekeria gainditzeko solidaritatea eta lankidetzasmo harturik.

## Etxe berria eta ikastola

72an ofizialtasuna lortu zuenerako, eraikuntza berria egin beharra zegoen ikasle kopuruaren handitzeari erantzungo bazitzaion, eta 1970ean Torrebasoko etxea, gaur ezagutzen duguna jaso zen. Urte berean hasi ziren zentrua euskalduntzeko lanetan ere, herriaren nortasun ezaugarri diren euskara eta euskal kul-

tura berreskuratu eta indartzeko bidean. Ikastola bihurtu eta 71-72 ikasturtean Ikastolen Konfederakundeant sartu zen Almen.

Guzti horrek zekarren berregituratzeari aurre egin behar izan zitzaion, neurri handi batean, zegoen irakaslegoaren borondate, ahalegin eta dedikazioaren truke. Talde berriek aurrera egin ahala mailaz-maila ikaste-

du, eskualde osoko hezkuntzan sustraitu eta formula aberats eta irudikorrean gauzatu asmoz.

## Eta etorkizuna

Orainarteko ekinaren oemaitza ikusirik, bere buruarentzat badu Almenek zer den eta zer izan nahi duen, xedea ezarria. Urteak direla ikastola izaera hartu izanak etorkizunerako ere nortasun horixe finkatzera bultzatzen du Almen. Herrietik eta herriarentzat sortutako ikastola da, "herri ekimenak sortu zuen. Monopoliorik gabeko eskola izan nahi du bestalde, eta inongo herri jakinekin lotura izan barik, Leintz Bailara osora irekia egon nahi du. Azkenik, euskarazko eta kalitatezko hezkuntza eskaini nahi duen eskola dugu gurea".

## Urteurrena

OHO eta Batxilergo artean 1.440 ikasle eta irakasle eta zerbitzuetako artean dauden 80 langileek, ikastetxearen 25. urteurre-

**"40 ikaslerekin hasi ziren, Marianisten ikastetxe izandako Bainuetxean"**

txea euskaldunduaz joan zen. Gaur egun dauden 50 taldeetatik 47k euskaraz egiten dituzte ikasketa guztiak.

Ikastola berriak kooperatiben formula eta egitura onartu zuen, eta harrez gero Hezibideren barruan dihar-



naren ospakizunei eman diete hasiera egunotan. Maila bakoitzeko taldeentzat ikuskizun bereziekin hasi zen asteburuko jaia: pailazoak, mimika eta antzerkia. Ondorengo inaugurazio ekintzan, ikastetxearen lehenaz, orainaz eta geroaz hitz egin zuten zuzendaritza, irakasle eta ikasleen ordezkariak, eta hasiera haieran egindako lanarengatik oroigarriak jaso zituzten bazkide fundatzaile nahiz laguntzaileak. Bailarako abesbatzak eta Arrasate Musikalek elkarrekin eskaini zuten kontzertuarekin itxi zen ostiralekoa.

Larunbata erabat ezberdina izan zen. Goizean goizetik kirolak, umeeentzako



Bazkaritan mila lagunetik gora bildu zen kiroldegian

Eguerdiko ordubietan herri bazkaria biltzekoak ziren, guraso, ikasle, irakasle, direnak edo izandakoak, eta gonbidapenak harrera zabaldu eduki zuen. Bederatzi-hunentzat pentsatutakora mila lagun pasa bildu ziren, lehengo banaka batzuk tartean baziren arren, oraingo Almenekin lotura duen jendea batez ere. Deia zabaldu izan bazen ere, ikasle ohien aldetik, esaterako, ez zuen arrakasta handiegirik izan. Bazkalosteko erromeriak ederki girotu zuen eguna, eta urtean zehar izango direnetarako jendea prestatu ere bai. Igandeko mezaz amaitu ziren asteburu honetakoak, baina ikasturtean zehar ere izango dira hainbat ekintza. Ikasleen partaidetza aktiboari dei egin behar.

**“Asteburuko ekintzek harrera ona izan zuten ikasle eta gurasoen aldetik”**

jolasak eta guraso eta irakasleek ikasleen aurka jokatu zuten partidua ikusteko aukera izan genuen bertaratuok. Aspaldian ikastetxean izan gabeko jende asko iritsi zen Almenera: agurrak, besarkadak eta irribarreak, aspaldian elkar agurtu ez dutenen keinu ohizkoak.

**Lan isilari esker**

**J**oan den larunbateko herri bazkarira joan zirenek, prestaturik aurkitu zuten dena Almeneko kiroldegian. Eseri eta bazkaltzea besterik ez. Baina goizean goizetik talde handi bat mugimenduan zebilen. Botilak ekarri, kamioitik burdinak eta oholak hustu, banan-banan eramanez, eta mahai guztiak montatu. Gorengo mailletako ikasleak ziren. Protokolorik gabeko festan parte hartzen zuten, lanean parte hartu ere. *“Bazkariak gaizki iriteten badu ere, merezi izan du ikasleak honela ikusteak”*, dio lanean diharduen irakasle batek.

Fatiduen emaitzak, elkarrizketak eta era guztiarako oharra entzuten zaizkio megafonian ahots gazteari: mikroaren aurrean lehen saiok egiten dituzten ikasleak dira.

Lan asko eginarenekin nekez eta bazkalosteko juergaren ajez amaitu zuten ikasleek eguna. Baina ikasturtea hasi besterik ez da egin, eta ospakizunetarako komisiotetan lan asko geratzen zaie. Orain artekoa behintzat ondo atera da. Zorionak!

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**


**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE









Antonio Campos

## Ikastolak baikor etorkizunaren aurrean

**A**ntonio Campos Orion jaio zen 1942an. Ikastolen Federakuntzako presidentea da. Hamabi urte badira postu hori betetzen duena, eta aurrez Seminarioan, Aurrezki Kutxa Muzipalean, eta Orioko kirol talde batean sartuta egon zen.

— *Federakuntza sortu zenetik zaude lehendakari?*

— Ez, gutxienez dozena erdi bat lehendakari egongo ziren nire aurretik.

— *Almenen bezala beste toki batzuetan ere 25 urteurrenak ospatu izan dira. Zer esan nahi du horrek?*

— Bada hori, duela 25 urte euskal irakaskuntza herri honetan ziurtatzea utopia zen. 25 urte pasatu dira eta ikastolena errealitate indartsua da gainera. Herri gehienetan eta ikastola guztietan.

Ikastolak indar handia du, era guztietako indarra: alde batetik irakaskuntza euskalduna posible dela ziurtatu da. Bestetik, ikastolak indar sozial bihurtu dira, gizarte osoan onartuta. Aurrera begira erronka handia dugu. Ikastolak lortu duen gauzarik garrantzitsuenaren herriak ikastola bera beretzat duela.

— *Nola deskribatuko zenuke Iruñeko asanblada?*

— Ikastoletan era guz-

tietako pertsonak gaude, era guztietako pentsamoldeak, partidu politiko guztietako jendea... herri honen egoera isladatzen da. Asanblada hartan hori gertatu zen, era guztietako eritziak azaldu ziren. Eztabaida handiak egon ziren arren, positiboena proiektu bat aurrera atera zela, ia gehiengoaren onarpenarekin. Eztabaidatu bai, baina gero gauza izan ginen proiektu baten inguruan elkartzeko, eta hori nahiko zaila izaten da.

— *Eta han hartutako erabakiak zertan daude gaur egun?*

### Publikotasuna alde sozialean oinarritzen dugu"

— Erabaki asko hartu genituen, eta poliki-poliki gauzatzen doaz. Proiektu bat onartu genuen, gure lana ikastola guztiak proiektu horretara inguratzen joatea litzateke. Partidu politiko eta abarrekin harremanak bideratu behar ditugu, azken finean gure proiektuak eskola berria bultzatzen bait du herri honentzat.

— *Nolakoa litzateke eskola berri hori?*

— Kogestionatua izan beharko litzateke. Gaur egun publikotasuna jabetza ente publikoak edukitzea da, eta guk publikotasun hori alde sozialean oinarritzen dugu, herriko zerbait izatean. Horregatik partaidetza osoa eskatzen dugu. Ez dugu nahi gobernuak erabaki, nahiz eta gobernu euskalduna izan, eta guk bete behar izatea. Erabakiak hartzeko garaian ere han egon nahi dugu.

— *Non kokatzen dira zuen proiektuan Nafarroa eta Iparraldeko ikastolak?*

— Elkarte Autonomoan indartsu gaude, baina Nafarroan eta Iparraldean ez da

ondo datorkion gauza da. Ez dakit biharko egunean ikastola guztiak kooperatibizatu egin beharko ditugun edo beste estruktura bat hartu beharko dugun, baina kooperatibismoan badaude zenbait gauza, oso interesgarriak gure mugimenduarentzat.

— *Ikastolen etorkizunari begira baikorra zara?*

— Bai, batez ere ikastola zerbait gurea delako. Orain urte batzuk, zailtasun gehiago zeudela, gurasoen parte hartzea handiagoa zen. Zailtasun horiek gainditzen joan direnean, gurasoak aldentzen joan dira, eta hori nolabait berreskuratu behar dugu.

Erronkak badira. Bat oso inportantea euskaraz bizi ahal izatea lortzea. Euskarak eskola berreskuratu du, baina ez kalea. Ikastoletatik pasatu diren guztiek kalean euskaraz egingo balute, egoera erruz aldatuko litzateke.

— *Ikastoletatik pasatu eta gero lan mundura iristen gara eta ez dago aukerarik lana euskaraz egiteko. Konturatzen zarete horrekin?*

— Euskarak duen zailtasun handiena beharrezkoa ez izatea da, eta guztion artean egin beharko dugu beharrezko. Dena den, gaurtik biharrera ezingo da aldatu, denbora asko pasatuko da hori gerta aurretik..



# New York, New York

*Lau arrasatear marathoiaren mecara*

**J**ose Luis Arroiabe, Pablo Balerdi, Eukeni Olabarrieta, eta Enrike Mazmela arrasatearrak, Elgoibarko Jose Luis Eguren eta Bergarako Arriolarekin aspalditik dabilta entrenamenduetan datorren hilaren 4ean New York-eko marathoian parte hartzeko. Marathoia 4ean bada ere, Arrasatek hilaren 2an aterako dira korrikalariak 9an berriro etxera iristeko asmoa daukatelarik. Bueltarako berdin.

Ez dira Arrasate inguruetan entrenatzen ibili diren sei hauek New York-en izango diren euskaldun bakarrak, eurekin batera beste 30 gipuzkoar joango dira eta, ahaztu barik beste probintzietatik ere joango dela jendea.

30 gipuzkoarrek autobusez egingo dute Madrilera arteko bidaia, gero han abioia hartu zuzenean New York-era joateko.

Bidaia, ondo antolatuta dagoen arren, luzea da eta aklimatatzeko denbora gehiegirik ez dute izango arrasatearrek. Alde batetik horregatik ez dute espero marka onegirik egitea, eta bestetik euren helburua ez delako marka edo lasterketa ona egitea, baizik eta marathoiaz gozatzea.

Behar bada bati baino



Balerdi eta Olabarreta marathoian parte hartuko duten bi

gehiagori arraroa egingo zaio entzutea, hain lasterketa luzea izan da marathoiaz

gozatu daitekeenik. Dena dela, ondo entrenatuta omen daude Deba Garaitik doaze-

nak, astero, taldean edo bakarka, ehun kilometro inguru entrenatu bait dituzte, eta ez dute uste marathoia bukatzeko arazorik izango dutenik.

Marathoiaz gozatu eta New York ezagutu aldi berean, ez da lehen aldia horrelako esperientzia batean parte hartzen dutena eta ezta izango ere azkena eurek diotenez: "Duela 4 urte Atenas-ko marathoia egin genuen eta gero astebete bertan pasatu. Aurten New York-en gauza bera egingo dugu, eta aukera izanez gero, hemendik urte batzuetara beste norabait joango gara".

## New York-eko Marathoia

Urtea	Partehartzaileak	Iritsitakoak	%
1970	126	72	57.1
1976	2.090	1549	74.1
1980	14.012	12.512	89.3
1983	17.165	16.064	93.6

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**M** MIKEL

**Eskaiola, pintura eta kortexoko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



# ANGEL GARCIA

## Estatuko txapeldun berria halterofilian

**A**ngel Garciak 16 urte bete berri ditu, Eskola Politeknikoan ikasten du eta joan zen astetik halterofiliako Estatuko txapelduna da haur mailan, Gijon-dik ekarritako lorpena, berak espero ez bazuen ere. "Aurrez, bigarren gelditzeko esperantzak nituen gehienera. Euskadiko eta Gipuzkoako rekordak neuk nituen, baina horrek ez zuen ezer esan nahi. Erraz irabazi nuen, bigarrenari bost kiloko abantaila atera bait nion. Hala eta guztiz ere, normalean jasotzen dudana baino bi kilo gutxiago jaso nituen. Parte hartu genuenok normalean baino okerrago ibiltzearen arrazoia nerbioetan dagoela uste dut".

Jasotzea aipatzen du Angel Garciak eta gezurra dirudi 1,65 metro neurtu eta 56 kiloko pisua duen mutil argal hau 97,5 kilo bizkar gainera eramateko gauza izatea. "Beno, gehienbat teknikaren errua da hori, indarra baino askoz ere garrantzitsua da eta daukazu indarra probetxatzen jakitea. Halterofilian bi modalitate daude, bata behetik gora kolpean jasotzekoa, eta besteabi mugimenduren bidez jasotzekoa. Horien artean nik bi mugimendutakoa nahiago dut, teknikaren bidez indarra gehiago apro-

# PODIUMA



betxa daitekeelako".

Jende oso gutxi da kirol honetan sartuta dabilena eta beharbada horregatik arraroa egiten da 16 urteko mutiko batek halterofilia aukeratu izana. "Esan daiteke kasualitatez hasi nintzela. 12 urte nituen eta egun batean kiroldegian nengoen kuadrilakoekin bihurrikeriak egiten dutxetan. Halterofiliako monitorea etorri zen, gu harapatu eta inguruko paper guztiak jasotzen jarri gintuen. Bukatu genuenean kuadrilakoei ea pesak probatu nahi zuten esan zien. Ni ere han agertu nintzen probatu nahi nuela esanez. Txiki eta argalegia nintzela erantzun zidaten, baina hala ere egoskor jarri eta probatu nuen. Handik aurrera egunero etoritzen hasi nintzen".

Egunero joaten hasi zen bai Angel Garcia, baina bi urte lanean pasatu behar izan ditu lehen emaitza positiboak iritsi artean, eta beste bi gailurrera iritsi artean. "Gailurrera ez, oraindik europarrak urruti ditugu eta".

### □ Xakean denetik

Xakeko denboraldia hasita dago eta Arrasateko taldeek joan den asteburuan denetariko emaitzak lortu zituzten. Preferente mailako taldeak 3 eta 1 galdu zuen Irungo taldearen aurka; bigarren mailakoak berriz, 4 eta 0 irabazi zion Legazpiko taldeari; hirugarren mailakoek euren artean jokatu zuten eta Arrasate A-k Arrasate C-ri 4 eta O irabazi zion. Kategoria honetan bertan Arrasate B-k garaipen erraza lortu zuen Bergarako taldearen aurka.

### □ Central Jet-ek galdu

Pasa den larunbaten Irun aldera joan ziren Arrasateko saskibaloi taldeko jokalariek, bueltan garaipenik ekartzeko gauza ez zirelarik izan, 71-68 galdu bait zuten. Legezko denbora pasa eta gero markagailuak erakusten zuen berdintasuna kantxa gainean gertatu zena- ren adierazgarri da, garaipena talde bata zein bestearentzat izan bait zitekeen

### □ Rugbylarrien lehen garaipena

Pasa den astebururarte rugby taldekoek aurkako markagailuak besterik ez zuten ezagutzen, diferentzia handiekin gainera. Atletico San Sebastian taldea izan zuten bisitari pasa den astean, eta ustekabean izan bazen ere, partidu arraro baten ondoren, arrasatearrak atera ziren garaile 6 eta 4ko emaitzaz.

### □ Neskak partidu ona

Mondragon OK emakumeen futbol taldeak partidu ona jokatu zuen lidergoan dagoen Añorgaren aurka, nahiz eta 4 eta 1 galdu. Orain arte emakumeen taldeak jokatuak zituen partiduetan gol asko jasotzen zituen, baina pasa den asteburuan, makal samar hasi baziren ere, gai izan ziren erantzuna emateko kategoriako liderraren aurka. Ea hurrengoa irabazten duten.

# AXOLA KLIMA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA
- MANTENUA




Asteburuko kontzertuak

# Gozamenetik asperraldira

**B**i kontzertutan izan nintzen joan den asteburuan: *Immaculate Fools*-ena Txibiston ostiralean eta, *The Four Brothers*-ena Amaian, larunbatean. Lehengoan oso gustora egon nintzen bitartean, bigarrenean aspertu egin nintzela esan behar.

*Immaculate Fools* berri-tuta etorri zen Txibistora, taldean aldaketa ugari egon bait da azkenaldi honetan. Baina aldaketa horiek ez diote taldeari bat ere kalterik egin. Alderantziz, *Fools*-en musika inoiz baino aberatsagoa iruditu zitzaidan Txibiston. Berez, talde honen kantuek nahiko ximpleak izaten dira melodia aldetik. Hasiera



apala, lelo labur eta sarkorra, eta instrumentuen crescendo-a konstanteak dira kantu gehienetan. Kantariaren ahots ederrak, musikoen kalitateak eta moldaketen goi maila ematen diete kantu ximple horiei behar duten indarra, eta gozamina eragiteko ahalmena. Eta gozatu egin genuen, nik uste, Txibiston geunden denok. Taldea ere gustora ari izan zen, ohi baino luzeago eta entzuleen eskariei behin eta berriz

erantzunez. Aipamen berezia merezi dute soinuaren arduradunek, gutxitan lortzen bait da horrelako garbitasuna. Benetan bikaina ostiraleko kontzertua.

Oso bestelakoa izan zen larunbatekoa. Hitzerdika ibili gabe, aspertu egin nintzela esan behar. Eta penaz esan ere, musika afrikarraren oso zalea bait naiz. Baina *Four Brothers*-en musika ez da kontzerturako, dantzarako baizik. Etxean dudan Zim-

baweko beste talde baten diskoa entzutean, *Bhundu Boys*-ena hainzuzen, ezindut alde bat baino gehiago jarraian entzun. Talde batak zein besteak kantu alai eta erritmo bizikoak egiten dituzte, baina beti molde berean, ia bariatorik gabe. Lehen hamar minututan berri-erregioak suerta daitezke baina handik aurrera errepikapena dator, monotonia eta asperraldia. Txarangamusika ordubetez eta jarrita entzunez gero, nik uste gauza bera gertatuko litzatekeela.

Dena den, musika afrikarrean oraindik aurkitu gabeko altxorra daukagu. Ea hurrengoan zorte hoberik dugun!

Mikel Irizar

markeliñe antzerki taldea



Urriak 27 larunbata  
Gaueko 10.30etan  
Amaia antzokian

PIUMAS  
CELESTIALES





# HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Golain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

**PRESTATU NEGURAKO**

**LORAMENDI KIROLAKen**

**Txandalak, kamisetak,  
lumabak, botak...  
EZ GALDU AUKERA**



# Gaztelania eta euskararen arteko diglosia

**G**aztelania eta euskararen arteko diglosia seitik, hirura bitartekoa da (6/3). Hau da, gaztelaniak euskal lurraldean, sei funtzio betetzen dituen bitartean, euskarak hiru baino ez ditu betetzen. Sei, zati hiru (6/3) eragiketa eginez gero, emaitza «2» dugu. Honek esan nahi du, gaztelaniaren inposaketa Biko indarrarekin ematen ari dela. Beraz, egoera hau probokatzen duten baldintzek dirauten bitartean, gaztelaniak gero eta esparru zabalagoa bereganatuko du «diosku Txepetxek» «*Un futuro para nuestro pasado*» liburuan.

Erdera zabaltzen ari da bai, izan ere, zenbait euskaldunen axolagabekeria benetan kezagarria da, askoren kasuan

euskarak familia funtzio ere galduta du eta kasurik onenean txakurrarekin eta seme-alabekin, (adin batera heldu arte) komunikatzeko bakarrik erabiltzen dute, beste familiartekoekin erdera gabi ederrean mintzatuz.

Hau horrela izanik ere, talde sozial eta gizagabanako batzuen kasuan, euskarak betetzen du funtzio nazionala. Hauek, euskarak orokorrean duena baino erabilpen funtzional maila handiagoa dute lortua.

Euskara hizkuntza nazional bezala bizi dutenak, hots, kontzientzia maila bat lortua dutenak, izan beharko dute gainontzeko euskaldunen bultzatzaile. Denon ahaleginarekin betebeharreko funtzio guztiak beteaz, euskara Euskal Herriko hizkuntza nazio-

nala izatera hel dadin.

Oraindik sektore mugatuak dira hizkuntza nazionala euskara dutenak, baina, sektore horien existentziak berak, garbi uzten du posible dela.

## Euskara batua eta euskalkiak

Gaztelaniak blokeatu egiten dio euskarari dagokion funtzio nazionala. Honen ondorioz eta funtzio nazional hori betetzerik ez duelako, batua, euskalkien esparruan sartzen hasten da. Baina, honek ez du esan nahi, bata edo bestea baztertu egin behar direnik. Euskalkia beharrezkoa da, hizkuntzaren altxorra izateaz gain, herritarrengandik hurbilen dagoen mintzaira da eta. Euskalkienganako lotsa eta konplexuak kendu eta erabil

ditzagun lasai. Baina egoki denean, ez bait da berdin Euskal Herri osorako idazten edo hitz egiten ari garenean edo geure herriko (herri-irratietan, herri aldizkarietan, herri barruko propaganda txarteletan...) ari garenean. Aldi berean, ezin da inola ere ukatu, sasoi honetan estandar edo funtzio nazionala betetzera heltzen ez den hizkuntza betirako desagertzera kondenatua dagoela.

Ulertu egin behar dugu, bada, euskalki eta batuaren arteko tirabirak, askoz ere sakonagoa den istilu handiaren ondorio direla; beste arazotzar hori konpondu gabe ez dagoela beste hau konpontzerik; aldiberekoak direla azken finen.

Atalataikoan

Arrasateko I. Ihardunaldiak

## HITZALDIA

Azaroak 6, asteartea

• Aurkezpena U.E.U.ren Ordezkarria

• Sarrera hitzaldia

**Lan merkatua, kualifikazioaren garrantzia eta dinamika**

**Lan merkatuaren gora-beherak**

*Kualifikatu, zertarako?*

*Deba Garaiko adibidea.*

*Etorkizunera begira zer?*

*Galderak*

• Hizlaria: **Koldo Azkoitia Zubizarreta**

Enplegu eta Heziketarako Teknikaria.

Deba Garaiko Eskualde Komitea.





## Eusebio Viamonte



**P**ozik baino poziago dago Eusebio Viamonte bere Opel Kadet-arekin. Sei urte beteko ditu datorren otsailan Eusebiok bere autoarekin eta dioenez, ez omen du sei urteetan aberia bakarra ere eduki. Beharrezkoa ez bada, ez diola zapaltzen dio Eusebiok, baina presaka ibiliz gero, oso seguru sentitzen omen da abiada handian joanda ere. Normalean ez dio gehiegi begiratzen autoari, "Olioaren nibela noizbehinka begiratu eta kitto, gasolinarena ere bai noski. Garbitzeko beti eramaten dut makinara, erosoagoa da eta gainera primeran gelditzen da".

**EUSKAL HERRI BERRIA**



*Zure esku!!*

**eman botua**  
**HERRI BATASUNA****ri**



# Azken egunak

**Z**egoeneko aste osoa eman genuen bizikleta, mendi eta haran artean. Zurizan geunden, 1990eko abuztuaren 3an. Kanpinean bertan gosaldtu, zerbait erosi eta eguraldi bikainaz gertu geunden urte-teko.

Guztira 7 ordu, 2 minutu eta 56 km. egingo genituen. Helburua Ozako Oihanera (Selva de Oza) joatea zen. Horretarako Tacheras ingurura jo genuen eta gehiegi eza-gutzen ez genuenez, pistatik gora egin genuen, Alano Mendileporantz, ezkerretarajo beharrean. Laster konturatu ginen oker genbiltzala baina paisaiak edo, bertatik pasatzeko erabakia hartzera bultzatu gintuen. Egundokoak



igaro ondoren, halako batean, mendilepora heldu ginen. Aurrean eta bestekaldean geneukanak ez zuen itxura hobirik, klabija batzuk pasatu behar izan bait genituen. Bizkarrean hartu bizikletak eta zelabaiten jaitsi ginen. Estri-viellako Amildegitik Ozara bertara abiatu ginen. Ozako paraje zoragarria dastatu eta Infernuko Ahorantz abiatu,

ohizko bidetik behera. Bailara zeharkatu eta 10 km. egin ondoren, Siresa eta Echora heldu ginen. Echo utzi eta Ansotik Zurizara jo genuen. Ziur aski, inguru hauek ondo ezagutuko dituzue.

Hurrengo egunean, Hiru Erregeren Mahaia mendira igo genuen, guztira 2 ordu et 50 minutu gora heltzeko. Hurrengo egunean Oriora itzuli

ginen, gutako batek itzulera osoa bizikletan egin zuelarik, 220 km 10 ordutan, Zurizatik Orioraino.

Guztira aste osoko mar-txan: 38 ordu, 9 minutu

Kilometroak guztira: 373.

Ondorio bikaina ateratu dugu esperientzia berri honetatik. Eguraldiak ere oso lagundu digu; ez daukagu motiborik zailtasunak egon direla esateko. Benetan zoragarria izan da, lasai, bare eta naro igaro ditugu egunak, ingurunea eta bizikletaren gozamina sentituz.

Atzean utzi ditugu bazter ezkutu aparta horiek, hurrengo batean ere itzultzeko eta jarraitzeko asmoaz. Ea animatzen zaren eta datorren urtean edo hurrengo batean zeuk ere horrelakorik egiten animatzen zaren..

K. U.

## Construcciones ARRASATE S. L.


(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE



Allegro Molto Vivace

# Allegro Molto Citroën



## CITROËN AX VIVACE



Aurreratu  
150.000 pezeta  
hil honetan, gasolina,  
AX Premier-etan



**CHAPIME Tailerrak** Araba Etorbidea, z/g telefonoak: 79 06 57/79 45 22 ARRASATE



Aste gazte

Soldadutza egitearen kontra dauden gazteak gerrarik gabeko munduaren aitzindariak dira.

Albert Einstein.



Txalaparta

• Txalaparta-Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek eta zaletuek, txalaparta jotzeko aukera dute, ohizko lokalean, larunbat goizetan, 10etatik 12etara.

Bekak

• «Jose Miguel de Barandiaran 1991» Etnologi Ikerketa-beka. Bakarkako lagunak nahiz lantaldeei zuzendua. Beren lanak euskal kulturaren arlo honetan garatzen dituzten euskaldunek izango dute lehentasuna

Iraupena: 2 urte. Diru-kopurua: 2.400.000 pta. Epea: 90-12-31.

• Mapfre Fundazioa Ikerketa-Bekak. Azkenengo hiru urteetan goi mailako ikasketetan lizentziatu direnei zuzendua. Arloak: prebentzioa eta erreabilitazio-asistentzia. Diru-kopurua: 650.000 pta. Epea: 90-11-9.

Lehiaketak

• «Eibarko Hiria» Gazteen VI. Ipuin-Lehiaketa Euskaraz eta Erderaz. 25 urte arterainoko guztiek parte har dezakete. Bi maila: a) 14etik 17ra eta b) 18tik 25era. Gai librea. Lanek, 7 eta 10 orri bitartekoak izan behar dute. Sariak: a) 25.000, 20.000 eta 15.000 pta. b) 40.000, 30.000 eta 20.000 pta. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 29ra arte.

• Leioako IV. Kaleko Argazki-Lehiaketa. Gai librea. Txuri-beltz edo kolorez. Bi maila: a) 12tik 18ra eta b) 18tik gora. Sariak: a)

20.000, 15.000 eta diplomak. b) 40.000, 25.000 eta diplomak, eta 20.000 eta diploma maila bakoitzeko 3 argazki-bilduma onenari. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 19ra arte.

• «Donostiako Hiria» Antzerki-gidoien Sariak. Gai librea. Iraupena: 75-120 minutu. Sariak: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-11-30.

• «Tomás Camarillo» Argazki-Lehiaketa. Gai eta teknika libreak. Parte Hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu behar ditu. Sariak: 1.) 150.000 pta. 2.) 75.000 pta. Epea: azaroak 30.

• «Andres Segovia» Musika-Konposaketa Lehiaketa. Modalitatea: kitarra. Gehieneko iraupena: 10 minutu. Saria: 200.000 pta. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 10era arte.

Ikastaroak

• Gipuzkoako Unibertsitate-Campuseko ikasleei zu-

zenduriko kirol-ikastaroak (unibertsitate-kirol karneta behar da): Aerobic, Xakea, Dantza Gelan, Urpeko Igeriketa, Jazz Dantza, Mantentze Gimn., Muskulazio Gimn., Gim-Jazza, Hipika, Judoa, Kempoa, Mountain bike, Igeriketa, Orientazioa, Paddle-tenmisa, Parapentea, Piraguismoa, Lehendabiziko Laguntzak, Roll-skya, Tai-Chi, Bela-gurutza, Bela, Delta-egoa, Aikidoa. Izena emateko pea: urriak 31.

Ihardunaldiak

• Geografo eta Historilari gazteen I Kongresua. Sevillan, Azaroaren 29tik 30era arte. Izen ematea: 1.000 pta.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

I. Laborra Erdozain

ANALISI KLINIKOAK

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebiosa, Asisa, Capisa)

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

MUSAKOLA  
OSTATUA

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50



## ETXEBIZITZAK

- **Irakasle taldeak alokatzeko pisua** behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...). Tfnoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- **Donostiara ikastera doazen hiru neskak** beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizi izateko. Deitu 79 50 45 Tfnoa. Mertxe.
- **Lokala behar dugu** alokairuan (ez komertziala), bertan gure lana burutzeko. 50m<sup>2</sup> inguru. Berdin dio non eta nola dagoen. Tfnoak 79 21 09 eta 79 95 83.
- **Neska euskalduna behar dugu** Gasteizen pisua osatzeko. Tfnoa: 79 50 53.
- **Neska behar da Donostian pisua osatzeko.** Tfnoa: 21 90 80
- **Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza** berogailuaz salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- **Pisua saltzen da Izarra dorrean.** Interesatuok dei egin 792364 zenbakira.
- **Makatzenan 5. pisu bat salgai** daukat, igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- **Pisua salgai Erguin kalean,** oso salneurri interesgarrian. 798741 telefonon nahi adina informazio.
- **Maitena kalean pisua saltzen dut.** Interesatuok deiegin 793338 telefono zenbakira.
- **Seme-alabarik gabeko bikoteak pisua** alokatu nahi luke. Dei egin 798820 telefonora

## LANA

- **Neska gazteak etxeko lanak** eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 56
- **Latin, greko eta euskarazko klaseak** ematen dira. Tfnoa: 79 50 88
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** ume txikia zaintzeko, urtariletik aurrera. Tfnoa: 945 - 22 62 22
- **IEE bigarren mailako Fisika eta Matematika** ikasketak ematen dira (Injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaba eta igandea bitartean)
- **Neska behar dugu igandean lan egiteko;** autoa beharko luke. Tfnoa: 79 47 85
- **OHoko klase partikularrak emateko prest.** Euskaraz nahiz erderaz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.
- **Neska euskaldunak lana egingo luke** arratsaldez. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- **Pertsona behar da San Viator ikastolan** ikasleen begirale eta aktibitateak egiteko, eguerdiko 1-3.30etara.. Euskalduna eta aisialdian esperientziak. Epea azaroaren 2ra arte. Eskariak San Viator Ikastetxean Arrasate Pasealekua 10, Tfnoa: 79 04 11.

## SALEROSKETAK

- **Solarium-a eta estetika aparailuak salgai.** Tfnoa: 75 24 66 Esther.
- **Fotokoplagailua salgai.** Sark SF 7400 markakoa. Tfnoa: 76 62 68
- **Peugeot 205 GT salgai.** Bost urte eta 85.000 km., egoera onean. Deitu 77 08 95 tfnoa. Ilunkaran hobeto.

- **Peugeot bizikleta plegablea** egoera onean salgai. 8-10 urtekoentzat egokia Tfnoa: 79 32 61 Haritz.
- **Philips musika ekipoa salgai.** Dei egin 76 40 50 tfnoa. (10.00-13.00 eta 17.00-20.000 bitartean) Fermin.
- **Kitarra akustikoa "Jasmine bytakamine" salgai.** Erabili gabe. 35.000 pta. Tfnoa: 79 23 97 Josu.
- **Kolorezko telebista salgai 22'koa.** Prezio onean eta egoera onean. 79 30 97 tfnoa deitu 3etatik aurrera.
- **Bideo kamara saltzen dut,** Sony markakoa CCD-V 200 E PRO modeloa. Deitu 796756 telefono zenbakira.

## DENETARIK

- **Frantsesetik Itzulpenak** eta bestelako mekano-grafi lanak egiten ditut. Ana. Tfnoa 795676
- **Eraikitzeok lurra behar da Arrasate,** Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnoa
- **Datorren ikasturtean Madrilera joan** beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- **Astelehen goizean Donostiara joateko,** bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei 79 13 83 Arrasate.
- **San Andreseko Goenatxori eta Iturriozko Planojoleari.** Hurrengoan, herri kirolak egin behar dabitzuzue ere urten herriko plazara eta danon bistara egin. Ah! eta topau Musakola aldien zezentxoren bat desafixue egiteko Santamasetan.



## ARRASATEN HILDAKOAK



**Pedro Arana Belar**  
urriaren 12an, 78 urte

**Isabel Uribarren Egiluz**  
urriaren 18an, 81 urte.

**Remedios Fernandez Valenzuela**  
urriaren 19an, 81 urte.

**Luisa Galarreta Telleria**  
urriaren 19an, 81 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


**Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 77 08 15**



# Zer nahiago?

## Jose Alberto Iñurrategi Ileapaintzailea



- Ile luzea moztu ala konpondu? Konponduta hobeto.
- Bezeroak ixilak ala berritsuak? Normalak, ez bata eta ez bestea.
- Txanpuz ala txanpu barik? Txanpuarekin.
- Orrazkeragatik, punky-ak ala hippy-ak? Hippyrekin gelditzen naiz.
- Orrazia ala zepilloa? Orrazia.
- Ile grasoak ala lehorrak? Lehorrak.
- Garagardoa, beltza ala normala? Ez bata eta ez bestea, sagardoa.
- Koloniaz ala kolonia barik? Kolonia barikhobeto.
- Artaziaz ala labanaz? Artaziaz.
- Esatea ala entzutea? Beti entzutea.
- Bizarra ala bibotea? Bibotea gehiago gustatzen zait.
- Aldizkariak ala egunkariak? Nahiago ditut aldizkariak.
- Tabako gorria ala beltza? Gorria.
- Okela ala arraina? Porru-patatak nahiago, baina ez naiz barazkijalea.
- Haurrak ala helduak? Lanerako helduak, eta bestela ere bai.
- Moda berriak edo flekilloak? Bakoitzak duen aurpegiaren arabera.
- Txapelaz edo txapel barik? Txapel barik, ilea hobeto konserbatzen da.
- Lana, bataz ala bata barik? Bata barik, askoz ere estetikoagoa dela uste dut.
- Elurra ala eguzkia? Eguzkitan beti hobeto.
- Slipak ala kaltzoiak? Ba tere ez.
- Herria ala hiria? Hiri polit batean hobeto.
- Taberna ala ileapaindegia? Beno, momentuaren arabera.
- Permanenteaz ala barik? Naturala da hoberena.

# Zelebrequerixak

**B**ai jauna, bilinguismua aurrera doiala, eta zelako martxan gaiñera. Joan dan udan plaiarako autobusak jarri zittuen eta ikusi zein kartel jarri eben Pesako autobus estaziñuan:

Autobuses mañana y tarde.  
Autobusak bihar eta berandu.



**B**azan beñ beti jaleo billa ibiltzen zan kerten majadero bat, aritza bezelakoxe mutikotia bera. Behiñ tabernan zeuan mutik txiki, argar, baketsu batekin sartu zan:

- Hi, aizkora-mutur, hik begiratu egin dostak. Kabuen zortzi! Hori etxotsat nere amari be permititzen!

- Nik hiri begiratu...

- Bai, urten kanpora, bi ostixa emun bihar dostat eta.

- Bi ostixa? Hi ez hago burutik sano, lenenguakin lurriak najok eta.



**B**este behin lengo kertena sartu zan beste taberna baten eta galdetu eban fuerte:

- Zein da hemen Agirre?

Jende arteko batek eskua jasuz esan eban:

- Neu, zer ba?

Mutila hurreratu eta muturreko batekin lurrian luze laga eban.

Baina jentia, txokatuta, gizona barrez zeuala konturatu zan.

- Emon dosken muturrekuakin eta barrez? hi ez hago sano.

- Sakatu jotsat edarra.

- Zer ba?

- Ni enok Agirre, ni Arregi nok.

Juan Martin Elexpuru

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21 Tfnoa.797006  
ARRASATE





Pilarreko Gure Andrearen komentua (gerora Almen) 1930

**A**

retxabaleta eta Eskoriatza artean zegoen joan den mendearen erdialdean Eskoriatzako bainuetxe

ezaguna. Pilar Borbonekoa, Alfonso XIIaren arreba bertan hil zenean, berriz, maldan behera hasi zen, jendeak ur termalak kaltegarriak izan zitezkeela pentsatzen hasi bait zen.

1892an marianistek erosi zuten eta Pilarreko Andra Mariren komentua bilakatu. Etxeak 90 metroko luzera

zuen, galeria luze batek elkartzen zituen hiru pabiloi handirekin. Dena hamazazpi hektareako lurretan.

1906tik Almen sortu arte, hau da, 1965era arte, seminarioa izan zen. Ondoren Logroñora joan ziren frailegaiak. 1965ean, esan bezala, zenbait ikasleren gurasoek Almen sortu zuten (Asociacion Leniz Mancomunidad Enseñanza).

Lehen urtean 27 ikasle inguruz osatutako talde bat baino ez zegoen, eta irakasle bakarra: Txomin Madinabeitia mendiolarra. Urteak joan ahala, bai ikaste eta bai irakasleen kopurua haziz joan zen.

Almenen lehen urteak argazkiko etxean igaro ziren, 1969an oraingo eraikuntzara pasatu ziren. Goian ikusten den *Torrebaso* baserria bota eta tontorrari zortzi-hamar bat metro lur (altueran) jan zioten, makinek. Egindako lautadaren gainean eraiki zen oraingo Almen.


Argazkia *Landeta* baserriaren artasolotik aterata dago, gaur egun Ederlan Kooperatiba daogenetik. Ikastetxearen aurrean trenbidea (1917tik aurrera) eta errepeidea pasatzen ziren. Goian, Kurtzebarri mendia.

**PUB HAIZEA**



**ENARA**  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32





# Hitz gezidunak

*		Aurrekaldea		Euskal troskisten ald. Animalien erakusleku		*		Baneuka
*		Azpien				Zero		
								Bokala
								Barazki mota
Itas ugeztun Personaia mit. grekoa						Dotore (naiei) Zuen		
					Malgu Berkelioa			
Emakume izena Lehenengo pertsona				Itzulia *				Sarrera
		Krudela Ezezta						
Urrea Umore kolpea			Bokala Bokala		Har ezan Gaixo			Kontsonantea *
		Infusio mota *				Bihi Bokala		
			Barazki mota Bokala	*				Gip. Irtena
		Ihardun Antolatu				Denbora tartea Bokala		
Lehen pertsona Berlinoa Ilajea			Roentgen 50		Eskuaren barnekalde Sail			
						Erdi, hitz elkar. Aragotze-ko		
Jaingo egyptiarra Musika erritmoa			Gudal erakustaldi Kanpo					
				Ugaztun hausnartzaile Oxigenoa				
Egilea								Bokala

Soluzioak

V	—	V	E	R	O	L	V	—
N	I	O	V	V	V	V	V	J
E	R	E	R	D	E	R	D	E
E	R	T	E	R	T	E	R	T
R	H	U	R	H	U	R	H	U
E	P	E	P	E	P	E	P	E
V	—	V	E	R	O	L	V	—
E	R	E	R	D	E	R	D	E
T	—	T	—	T	—	T	—	T
R	V	A	N	K	E	R	V	A
—	—	—	—	—	—	—	—	—
L	U	Z	V	R	O	L	I	K
N	I	F	I	N	O	I	F	I
V	—	V	E	R	O	L	V	—
B	—	B	—	B	—	B	—	B

ENBIDOtik hartuta, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN  
IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz 24



# DEABRUAREN HIZTEGIA (I)

- **Behin**, adv: Nahikoa.
- **Benetan**, adv.: Itxuraz; agian, beharbada.
- **Bitan**, adv.: Gehiegi
- **Erabaki**, ad. tr.: Eragin sorta batek beste eragin sorta baten gainean duen nagusitasunaren aurrean amore eman.
- **Fanatiko**, adj.: Gurea ez bezalako eritzia burugogor eta tematsu defendatzen duenari deritzaio.
- **Hautesle**, sust.: Bestek aukeratutako hautagaiei botua emateko pribilegio sakratua duena.
- **Kleptomano**, sust.: lapur aberatsa.
- **Kontserbadore**, adj: Unean uneko gaitzekin enamoraturiko politikoa, gaitz horiexek beste batzurengatik aldatzeko asmoa duen liberala ez bezala.
- **Ohitura**, sust: Aske direnen katea.
- **Politika**, sust.: Printzipio-lehiatz mozorroturiko interes-borroka.
- **Radikalismoa**, sust.: Biharko kontserbadurismoa, gaur eguneko arazoetan injektatua.
- **Telefonoa**, sust.: Pertsona ezatseginak urrin edukitzearen abantailak gutxitzen dituen deabruaren asmakizuna.
- **Zurrumurru**, sust.: Izen onaren hiltzaileen armarik maiteena.

Ambroise Bierce  
Ediciones del Diablo, 1986.

Itzulpena: J.I.

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



✓ **IRRATIKO AHOTSEN AURPEGIAK.** Behin baino gehiagotan aipatu dugun kontua da. Irratian oso ezagun bihurtzen diren ahotsei geuk jartzten diegu aurpegia, geure irudimenaren arabera... argazki, telebistan edo kalean ikusten ditugun arte. Orduan edozer gauza gerta daiteke, segun eta eginda geneukan irudi ideal hori eta benetazkoa nolakoak diren.

Aurrekoan Euskadi Irratiko Jaime Otamendi eta Arantxa Iturbe ikusi nituen Amatiñoren programa berrian, ETB1ean. Jaime ikusita nuen lehenagotik, beraz sorpresarik ez. Harrigarria bada ere, haren aurpegia ezezaguna zitzaidan arren, ez nuen sorpresarik hartu ikusitakoan. Bazirudien bat zetorrela aurpegia eta ahotsa.

Irratian berba egiten duten bitartean, guk ikusterik ez dugun gauza asko egingo dute, baina ostegunean makina bat beharleku eman zioten Jaimeri ditxosozko hatzazalek. Eta, jakina, Telebistaren begi salatzaileak ez du barkatzen. Hurrengoan ondo moztuta eta garbi-garbi eraman, Jaime.

✓ **MUNDUKO MARKARIK EZAGUTUENAK.** Landor Associates Consulting Konpainiak egindako azterketaren arabera, hauexek dira mundu mailan gehien ezagutzen diren markak:

- 1.- Coca Cola
- 2.- Sony
- 3.- Mercedes Benz
- 4.- Kodak
- 5.- Disney
- 6.- Nestle
- 7.- Toyota
- 8.- Mac Donald's
- 9.- IBM
- 10.- Pepsi Cola

Sei amerikar, bi japoniar eta bi europar. Kuriosoak izango litzateke jakitea Euskal Herrian egiten den markarik ezagunena zein den eta zenbatgarren lekua betetzen duen sailkapen horretan.

✓ **ETBIEN ZENBAIT PROGRAMAREN ORDUAK.** Denboraldi berrirako ETBk bere lehen kanalean atera dituen etxean egindako programaren artean, bi *-Nire etxe baitan* (azteazketan, gaueko 23.15etan) eta *Terminus* (ostegunetan, gaueko 23.20an)- berandu egiten zaizkit. Badakit errepikatu egiten direla, baina beldur naiz zenbait ikusleri niri bezala ez ote zaion gertatuko. Bateko berandu eta besteko etxean egon ez. Soluzioa: bideoan grabatzea, baina hori ahal eta nahi duenari eska dakiok.

✓ **LOMBARDIAKO GIROA.** Hortxe ibili zen Fede Etxabe, karreraren buruan tiraka eta azkenean bostgarren atera. Marino ere ez zen urruti ibili, zortigarren. Azken hoge kilometroak politak izan ziren.

Joxe Aranzabal

## Gusto baduzu

☐ **INGELES IKASTAROA**  
Ingelesa ikastea modan dago. ETB-k ere ekin dio era horretako programak emateari, eta egunero izango da Victor izeneko panpina guri ingelesa irakasten. Entzun ahala esaten dutena irakurtzeko aukera, arratsaldeko 17.45etan.

## ☐ HAUTESKUNDEAK ATBN ETA ETBN

Hauteskundeetako programa berezia ikusgai euskarazko kanal bietan: ATBN Arrasateko emaitzak izango dira, eta Euskal Telebistan Autonomi Elkartekoak, 20.00etatik aurrera eta ATBN 22.00etan.

## ☐ TENISA

Kirolzaleentzat, eta kirolen artean tenisa maite dutenentzat, ATP zirkuitoa izango da ikusgai ETBN, azaroaren 2an, ostiralez, 15.55 etan.

## Bideoak



### SORGIN SEINALEA

Habek bideoratutako istorio hau sorginkeria eta Inkisizioaren garaiak kokatua dago. Komikiaren binetak filmatuz egin da, guztira 35 m-ko iraupenez.

## Ostadar irratia

### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

### ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ji* (Haur kantak)

### OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabakletak)

OSTADAR Irratia. 102 FM



**A**zaroaren 12an ATB pizten duzuean, sorpresa izango duzue, umeek batez ere. Izan ere, egun horretan *Bapirulauke* umeentzako programa estreinatuko da. Programa hori prestatzen Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasle talde bat ari da burubelari lanean, euren praktikaldia aprobetxatuz. Sei dira *Bapirulauke* aurrera ateratzeko ardura hartu duten gazteak Anuska Lasa, Maider Aranburu, Nekane Lizarralde eta Iban Lazkano arrasatearrak, Amaia Axpe aramaioarra eta Shahid-R Mehasi oñatiarra.



*Bapirulauke* astelehenetan 7.30etan, albistegiaren aurretik. Astearte eguerdian errepikatuko da, arratsaldeko

## aste ko

### PROGRAMAZIOA

**29 ASTELEHENA**  
Ez da programaziorik izango.

**30 ASTEARTEA**  
11.00 *Teletestua*  
12.00 *Hauteskunde gaua* (igandekoa)

**31. ASTEZKENA**  
19.00 *Teletestua*  
20.00 *Berriak*, Koldo Rodriguezek aurkeztua  
20.20 *Zenbat buru, Hainbat aburu*, Mahaingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: azken hauteskundeak. Gonbidatuak, X. Zubizarreta (HB), Pedro Mari Ruiz de Azua (EA), (PSOE), Aitor Orobengoa (EE) eta (EAJ).  
**Berriak** (errepikaldia).

**1 OSTEGUNA**  
Ez da emisiorik izango.

**2 OSTIRALA**  
19.00 *Teletestua*  
20.00 *Berriak*, Begoña Garaik aurkeztua.  
20.20 *Erretratoa*, J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Felisa Ibañez, Txomintxiki.  
20.50 *Musikantoi*. 25. Programa dela eta, sorpresaz jositako saio berezia. Patxi, Asier, Mikel eta Pepe konpainia onean.  
**Berriak** (errepikaldia).

**3 LARUNBATA**  
11.00 *Teletestua*  
12.00 *Berriak* (bezperakoa)  
12.20 *Erretratoa* (bezperakoa)  
12.50 *Musikantoi* (bezperakoa)



## A

steazken honetan

Eskoriatzako **Telesko** telebista ATBren programazioaren atal batzuk ematen hasi da. *Medikua etxean*, *Erretratoa* eta *Musikantoi*, bestak beste, ikusi ahal izango dituzte eskoriatzarrek asteazkenero. Teleskok berak egindako programazioa astearteetan ikusten da eta ostegun eta larunbatetan errepikatu.



## SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

# eya

Sukaide eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07





## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Ahalegin handia egin beharko duzu eguneroko harremanetan sortuko zaizkizun arazoak gainditzeko; lanik handiena familiartekoei emango dizute. Lanak ez zaitu beteko, beharbada emaitzarik ez duzulako antzematen. Lo gehiago egizu.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Ingurua bare egongo da, baina zu zeu oreka aurkitu beharrean zaude, ez ukatu besteiei laguntzarik. Ez egin gorrarena besteekin arazoekin aurrean, laguntzen saiatu zeure onerako izango bait da. Kreatibitatea sendotuz doa arlo guztietan.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era


Aldaketaren bat suertatzen zaizunean antzematen da ohikoa chitoretara ondo moldatuta zaudela. Askotan nahiago izaten duzu ez jakitea erabakirik hartu beharrik ez izateko. Izan zaitez biziagoa aukera berrien aurrean.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Bero-bero zabilza lige horrekin ametsetan, ez da oraingoa unerik aproposena aurrera egiteko. Zentzu guztiak bizi-bizi izan beharko dituzu traba guztiak gainditzeko; burua argi edukitzen saiatu batez ere. Ez zara osasun egoera onean egongo.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra


Argi jokatu lan arloan, egoki ez esandako hitzen batek bertan behera utz bait dezake dena. Etxean trumoiak joko du momenturen batean, baina ez da luzarorako izango. Gorabehera ugari izango dituzu maitasunean.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Ez zaitez sinisbera izan zeure buruarekin behintzat, errealliterata etortzea behar-beharrezkoa izango zaizu eta. Ez zeuk, ezta ingurukoek ere ez daukazu zoriotsu egoteko motiborik oraingoz, ez zaitez horren bila ibili beraz.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Berrik zaindu beharrean izango zara Gemini, gaizki ulertuak egon bait daitezke. Ez ibili kapritxo guztiak lortu nahian. Iragana pasata dago, eziozu buelta gehiagorik eman.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Urduri egongo zara aste honetan eta hanka satzeren bat egiteko arriskua izango duzu. Ez eman eritzirik galdetzen ez badizute eta galdetuta ere, zuhurra izaten saiatu. Umore txarreko egoteak ez du ezer konponduko, argi beraz.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Ez utzi besteiei zure lan esparrua hartzen. Honek ez du esan nahi lankidetasuna utzi behar duzunik, argi ibiltzeko baizik. Astea aurrera joan ahala horretarako kemena handituz doala igarriko duzu. Ez da erromantze bati egiteko momentu aproposena.



## CANCER

Ekainaren 21tik  
Uztailaren 22ra


Sentibera egongo zara datozen egunetan, ez zara edozer jasateko umorez egongo gainera. Bizimodua hobeto hartzen saiatu eta batez ere ezizu hondatu zurea. Aste honetan ezizu eduki asmo handirik, zoriotsuago sentituko zara eta.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Tirabira eta adiskidetasun ugariko astea datorrena scorio. Arazoak ondo neur itzazu zailtasunak gainditzeak zure trebetasuna ikustaraziko badu ere. Osasun arloan gorabeherarik ez duzu izango. Maitasunean oreka lortzeko ordua da jada.



## PISCIS


Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Modu batera pentsatu eta bestera jokatzu gero, inoiz ez zaizu ezer ondo aterako. Ingurukoiei ziurtasuna ematen saia zaitez koherentea izanez. Lanean ezin erabili aisialdiko konturik. Maitasuna zure esku dago baina zirt edo zart egiteko ordua da.

# BIDEO-EMANALDIA

## Arka galduaren bila

- Tokia: Monterron Kultur Etxea
- Eguna: urriaren 27
- Ordua: arratsaldeko 4.30etan
- Prezioa: 50 pezeta
- Sarrerak: Monterronen
- Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



PARAMOUNT PICTURES-ek aurkeztzen du LUCAS FILM LTD-ek osatuta  
STEVEN SPIELBERG-en filmea  
Protagonistak: HARRISON FORD  
KAREN ALLEN • PAUL FREEMAN • RONALD LACEY • JOHN RHYS-DAVIES  
DENHOLM ELLIOT • MACKENZIE DORN WILLIAMS-ekin  
Ekiziteko Ekizitibitzaileak: GEORGE LUCAS eta HOWARD KAZANJIAN  
Gidatzaileak: LAWRENCE KASDAN • Inbentzioa: GEORGE LUCAS eta  
PHILIP KAUFMAN-ekin • FRANK MARSHALL-ek eskuztatuta  
STEVEN SPIELBERG-ek zuzenduta



# ARRASATE

## Lehiaketak

# 90

BERTSO  
PAPERAK

IPUINA

POESIA

Ipuina, poesia eta bertso-paperetan  
gazteentzako lehiaketa eta sari bereziak!

KOMIKIA

ARGAZKIA

BIDEOA

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA:

AEDn, Pablo Uranga 4 etxebehea, Tfnoa: 79 54 46

*Animatu eta parte hartu!!!  
Sari garrantzitsuak*


Lanak aurkezteko epea: 1990ko azaroaren 1a.

AEDk antolatuta Arrasateko Udalaren laguntzaz





ELEFANT



Iraun erazteko naturari,  
iraun erazteko geureari

eman botua

